

Astekaria

# BARRREN

elgoi



IHAUTERIETAKO  
GEHIGARRI  
BEREZIA

## Datorren urtea arte

OSTARKU



### Zure aseguru etxea

**MAPFRE**

San Frantzisko kalea, 34. Tel.: 74 05 82 - 74 14 04

# AURKIBIDEA

## PREIAZKO TELEFONOAK

- 3 ZENBAT BURU HAINBAT ABURU**  
(In)formazioa
- 6 ASTE HONETAN**  
Gustatzen al zaizu "bacalao" musika?
- 10 BERBETAN**  
Valentin Peñalba:  
Euskal Herria berrantolatu beharra dago
- 11 IHAUTERIAK**
- 15 ELGOIBARTARRAK GOGORATUZ**  
Antonio Arrillaga (Medikoa) 1
- 16 KIROLA**  
Elkarrizketa: Josu Artetxe  
Xake elkarteak egoitza berria du
- 20 ELKARTEETATIK BUELTAN**  
JMV: Kristautasuna bizi gazte izanik
- 21 KULTURA**  
Ihauterietatik Garizumara

### OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak...	461111
Txanda hartzeko	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala	756264
Drogomenpekotasun Z.	741008
Odol Emaileen elkarte	743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

### BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola	74 08 79
I.M.H.	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 44 41
L.H.I.	74 31 00
Pilar Ikastetxea	74 13 31

## farmaziak

- 19, larunbata: Yudego  
20, igandea: Yudego  
21, astelehena: Bidasolo  
22, asteartea: Bidasolo  
23, asteazkena: Bidasolo  
24, osteguna: Bidasolo  
25, ostirala: Bidasolo

## okindegia

20, igandea:  
**FOTERO**



## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



**ARGITARATZAILEA:**  
Elgoibarko Izarra  
**LAGUNTAILEA:**  
Elgoibarko Udala  
**ZUZENDARIA:**  
Alberto Agirreazaldeg  
**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**  
Anjel Ugarteburu  
**ERREDAKZIO KONTSEILUA:**  
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua  
**KAZETARIA:**  
Ainhoa Lodoso  
**MAKETATZAILEA:**  
Maite Rementeria  
**PUBLIZITATEA:**  
Nekane Etxaniz  
**ADMINISTRAZIOA:**  
Josune Fernandez, M. Angeles Ortúoste  
**KOLABORATZAILEAK:**  
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansoña, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Ina Garagarza, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, Nerea Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta  
**BANAKETA ARDURADUNAK:**  
Imanol Larrañaga, Inaxio Garmendia  
**INPRIMATEGIA:**  
Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)  
**TIRADA:** 3.300 ale  
**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92  
**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## (In)formazioa

**G**aur egun komunikabideekin gertatzen zaiguna informazio bonbardeoa da. Eta bonbardeo orok duen helburua ez da konstruktiboa, alderantziz baino. Gehiegikeriak, urgentziak eta bizkortasunak datuen asimilazio eta erabilera baliogarria galerazten dute. Datu sobredosiak ignorantzia dakar, konpainia-sobredosiak bakardatea dakarren bezala.

Komunikabideek hainbeste gehiagotu dute gure esperientzia -ez bizitakoa-, ez baitira beharrezkoak egiten gure irudimena eta garapena. Hainbeste dira jasaten ditugun presioak -komunikabide bateratzaileak, publizitate nekagarria, hezkuntza, erlijioa-, bakoitzaren bizitza pertsonalak balioa galtzen baitu. Ez daukagu ezer berririk komunikatzeko. Gure kidekoekin harremanetan jartzeko bezperako telebista-programan ikusitakoa bakarrik daukagu. Komunikazioaren objektu bilakatzen gara, sujetu izan beharrean. Komunikazioa medio bat izan beharrean, helburu bilakatzen da.

Helburua ez da gure informazioa, informazioa bera baizik.

Egun bizi dugun drama, bestalde, telebistek dakarten zozokeria orokorra da; kreatibitate, edertasun eta inteligentzia falta, eta arrunkeria. Gusto estetikorik ez dago, eta homogenizazioa da nagusi. Gusto piska batekin egiten diren programa desberdinak (eta, normalean, audientzia maila bajukoak) baztertu egiten dira, garai batean Radio 3eko irratsaio batzuekin egin zen moduan.

Audientzia mailak bakar-bakarrik irizpide izanik ez da harritzekoa jokaera hau. Boterearentzat deserosoak diren minoriei ezin zaie ezer eskaini, bilatzen den helburua denak talde batean pilotzea baita. Egiten diren programa gehienak jende mota jakin batean pentsatuz eginak dira, eta honen ondorioz bestelako jendearentzat ez dago erantzunkizunik. Nik behintzat kirolak eta filmeak -Antena 3ekoak izan ezean- bakarrik ikusten ditut.

**Jesus Mari Makazaga**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## GALDERAK

• Hamaika baserritarrek galdetu digute ea Santa Ageda bezperan zergatik ez zen Santa eskeko korua euren baserrira ere joan. Elgoibarko Izarratik esan digutenez ezinezkoa zen baserri guztietara iristea. 18 orduko jardunean 60 baserri pasa zituzten 4 orduko atsedenaekin (bazkaldu eta afaltzeko). Dena dela, datorren urterako pare bat talde ateratzeko asmoa daukatela aipatu digute eta aurten baino baserri gehiago pasatzeko aukera izango omen da.



## KEXAK

Ihateriei buruz bi kexa heldu zaizkigu:  
 - Larunbat arratsaldean ez omen zen ezer egon umeentzat. Zergatik?  
 - Larunbat gaueko lehiaketa "bastante txapuzeroa" izan zela ipintzeko agindu digute.



## TXALOAK

Udaletxeko brigadakoak zoriontzeko deitu digu pertsona batek. Hauen lana iluna eta esker-gaiztokoa iruditzen omen zaio eta BARREN aprobetxatu nahi izan du jendaurreko esker ona luzatzeko.

## ESKUTITZAK

### AEKko Euskaltegi libreen subentziorik eza dela eta

Joan zen urtetik, euskaltegi libreek ez dute subentziorik jaso eta, hala ere, esaten dute euskara zabaltzea nahi dutela, baina guk ez dugu ulertzen nola lortuko duten postura horretara iristea horrelako jarrerekin.

Gure ustez, danok berdinak gara eta non eta nola euskara ikastea nahi dugun erabakitzeko kapazitatea daukagu, alegia, guk AEKn ikasi nahi dugu baina, jakina, Elgoibarko AEK euskaltegia ere librea izanik, ez dauka subentziorik eta, noski, honela guk, AEKko ikasleok, beste zentroetako ikasleak bezala ez dugu eskubide bera.

Guk galdetzen diogu geure buruari, zergatik esaten duten euskara zabaltzea nahi dutela, egiten dutena galtzea denean. Garbi dago guri gustatzen zaigula AEKko metodoa eta ezin badugu matrikula ordaindu ez gara joango ez AEKra ez beste zentru batera.

Dirudienez, bakarrik zergak ordaintzerakoan gara berdinak eta okerrena da denok ordaintzen ditugula beste zentruetako subentzioak, baina guretzat ez dagoela. Azkenean lortuko dute euskara galtzea eta orduan ez da izango gure errua, administrazioarena baizik.

Hau guztia salatzen, AEKk sinadurak biltzen dihardu, guztiona den euskara ikasteko eskubidea lortzearren. Beraz, dei egiten diegu herritar guztiei euren sinadura eman dezaten.

### AEK Euskaltegiko talde bat

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Kezka, iritzi, galdera... adierazteko aukera duzue bertan.

Eskutitzak, idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NANA izan beharko ditu. Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak soilik agertuko dira.

## BERTSO AFARIA

SALLOBENTE ELKARTEAN

**Joxe Lizaso eta Imanol Lazkano**

Otsailaren 26an, LARUNBATA. Gaueko 9etan.

- PREZIOA: 2.000 pta.
  - MENUA: Tripotxa, bildotsa, gatzatua eta kafe konpletua.
  - IZENA EMATEKO: Otsailaren 24a baino lehen
- Sallobente Elkarte: 74 32 82 edo Elgoibarko Izarra K.E.n: 74 16 26

ANTOLATZAILEAK: Elgoibarko Izarra K.E.      LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala  
 Sallobente Elkarte      Foru Aldundia

**PU  
BLIZI  
TA  
TEA  
74 41 12**



**A**ste honetako erretratua **Maite Vallejok** lagatakoa da. Asmatuko al zenukete zein garaitan ateratakoa den? Karnabaletan? Normalena, itxura horiek karnabaletan ateratzea izango litzateke, baina ez. 1956. urteko san Bartolome jaietan ateratakoa omen da. Jakin dugunez San Bartolome jaietan euskal

ezkontza antzesteko ohitura omen zegoen. Erretratukoak ezkontza horretako partaide ditugu.

Zeintzuk diren? Ezkerretik hasita:

**Ignazio** (...) aita besoetakoaren papera antzesten, **Maite Vallejo** emaztegaiarena, **Anjel Riaño** apaizarena, **Tomas Garcia** senargaiarena eta **Juanita San Martin** ama besoetakoaren papera egiten.



*Otsailaren 14n hil zen **TEODORA GURRUTXAGA**ren ahaideok, **ESKERRAK** eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, eta samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.*

**ZALDUA**  
**ITURGINTZA**

**GAS ETA BEROGAILU**  
**INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

**Fotero**

**OKINDEGIA**  
**OPILDEGIA**

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

*imanole*  
**GOZOTEGIA**

San Frantzisko 44, 74 41 37

**ARMUETA**

**Baserriko**  
**haragietan**  
**berezia**



**Harategi Urdaitegia**

San Bartolome, 16. 74 06 40

**NAVA**

**INPRIMATEGIA**

**Furkesorak**

**Edozein lan mota**  
**inprimatzen dugu**

Sta. Ana, 44  
Tel 74 44 51



**ASTE HONETAN**

# "Bacalao" musika

**"B**acalao" musikaren historia ez da bapatean, gauetik egunera, sortutako fenomenua. Aspalditxotik gure artean dagoen musika estilo bat da, horrela dei badiezaiokegu behintzat.

1988. urte inguruan Levanteko zonaldean "bacalao" k benetako pasioa piztu zuen inguruko "niñato" en artean, honek zekarren guztirekin: mobida elektronikoa, ziztu biziko dantza, eta drogekin harremana.

Hona heldu arte, gauzak bere onean zeuden eta ez zen ezer gertatzen. Bapatean, Trafiko artezkaritza Nazional-III errepidean gertatutako gazteen auto istripu larriak azaltzen hasi zen, Madril eta Valentzia artean gertatutakoak. Pentsak horren berri eman zuen eta "bacalao" deritzon musikak izugarritzko gorakada izan zuen. Orduan sortu zen "ruta del bacalao" izena. Gaia ezagutzen ez dutenek, gurasoek batez ere, 18 urtetik 25 urtera bitarteko gazteak drogak hartu eta zoroen pare autoa gidatzen jarduten dutela uste dute.

Nahi eta nahi ez denon ahotan

dabilen "bacalao" musika hori, hor dago. Hor dago gogoko duen edonorentzat, (beste mordo bati, beste edozein musika estilo gustatzen zaio, esaterako rock and rolla, heavy-a, blues-a,...) gogoko ez duenarentzat ere, eta drogekin bakar bakarrik lotzen dituztenentzat.

Baina nik galdera bat egiten diot nere buruari. (Musika hau gorroto dutenei batez ere, egingo nieke nik galdera hau). Nork ez du gorputzeko atal bat bera ere mugitzen, nahiz eta ondo txikia izan, "bacalao" musika entzuten denean?

(Erredakzioan itzulia)



MANUEL OSORO

**Logopedia**  
**Zentroa**



**Isabel Gil Arrocha**

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

**Bidebarrieta, 27-B**  
**Tel. 11 84 71 EIBAR**

**LANBROA**



**elgoibar**

## Gustatzen al zaizu "bacalao" musika?



**Oihana Agirregomezkorta**  
17 urte, ikaslea

Egun normaletan entzuteko ez, baina ambienta-ta zaudenian dantza itxeko oso erreza da eta gustatzen jata. Etxian entzuteko nahixao dot musika lasaixa.



**Juan Carlos Mancebo**  
22 urte, ikaslea

Ez. Oso musika komertziala da, saltzeko eta diskotekak betetzeko sortu da. Moda bat da eta moda guztiak bezala pasatu egingo da.



**Juan Carlos Raña**  
25 urte, garraiolaria

Ez. Zarata asko, beste ezer ez da. Diskoteka asuntoa ere ez jata gustatzen. Guassera juten naiz beste ezer ez dagoelako, baina disgustura.



**Juan Carlos Revert**  
22 urte, langabetua

Ez. Pum, pum, pum, beti da berdina. Diskoteketan egon izan naiz eta dantzatu ezina dela iruditzen zait, lau salto eman eta kitto.



**Marta San Martin**  
23 urte, ikaslea

Ez, ezer ere ez. Tailerreko prentsa baten zarata ematen dau. Ez da sekula aldatzen, beti da oso berdina, monotonoa, ez letra eta ez ezer.



**Naiara Barrenetxea**  
15 urte, ikaslea

Bai. Dantza itxeko eta ondo dago. Etxian ere badakat asko entzuten ez doten arren. "El gallinero" izeneko kantu bat gustatzen jata gehixen.

**Gorostiza**  
DIETETIKA

**ZABALDU BERRIA**

- Sendabelarrak
- Kosmetika naturala
- Dietetika
- Eskolako materiala...

**Plaza merkatua 7-8-9**

**ASESORIA**  
**GOZAR**

**AHOLKULARITZA**

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAUAK

San Bartolome 1 behe. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

## ■ Udal Txistulari taldea Azpeitin

Datorren igandean, hilak 20, Elgoibarko Udal Txistulari taldeak kontzertu bat eskainiko du Azpeitin, egierdiko 12,30etan. Txistulari taldeaz gain parte hartuko dute kontzertuan Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleek, Udal Musika bandako metal taldeak eta Haritz Dantzari taldeak. Horrez gain, hilaren 27an, Udal Txistulari taldea berriro izango da Azpeitin, oraingo honetan, Azpeiti, Tolosa eta Iruñako udal txistulariekin batera kontzertu bat emateko.

## ■ Sexu heziketa ikastaroa gurasoentzat

Batxillergo Institutuak eta Udaleko Drogomenpekotasunen Prebentziorako Zerbitzuak antolatutako sexu ikastaroa hasi da dagoeneko. Ikastaroa lau asteazkenetan burutuko da eta Institutuko gurasoei zuzenduta dago. Era berean, Institutuko 1. eta 2. mailako ikasleek gaiari buruz jardungo dute martxoaren lehen hamabostaldian. Helburua gurasoek hezitzaile gisa duten garrantziaz jabetzea da. Eskolan, kalean eta familian sexualitateak gaur bizi duen egoerari buruzko informazioa emango zaie gurasoei; iritzi ezberdinak adierazi ahal izateko ausnarketa eta eztabaida gunea sortuz. Irakasle lanetan Donostiako Sexu Ikerketa Elkarteko psikologoek jardungo dute. Ikastaroa Kultur Etxean burutuko da asteazken arratsaldetan.

## Maltzaga-Urbina ardatzari buruzko jardunaldiak

“**Deba** bailara bizi bizirik”, Deba bailaran autopista egitearen aurkako plataforma, jardunaldi batzuk burutzen ari da Deba bailaran. Jardunaldien lehen zatia Deba Garaian izan ondoren eta plataformaren balorazioa “baikorra eta jendearen presentzia oso interesgarria izanik” Deba Beheko herrietan hitzaldi eztabaidak antolatzea erabaki dute. Horrela Elgoibarren hilaren

21ean, eztabaida-hitzaldi bat izango da Kultur Etxean arratsaldeko 7etan. Talde gonbidatuak “Leintz-Gatzaga eta Landako biztanleen taldea”, “Oinezko eta bizikletentzako bideen aldeko taldea”, “Plataforma Ciudadana Pro-autopista Maltzaga-Urbina”, HB, EA-EUE, “Kapirixo Kultur Ondarea babesteko elkar-tea”, EKI, “Mendia bizirik”, “Katagorri” eta “Eguzki” dira.



## ■ Ibilgailuen azterketa

San Roke auzoko Goardia Zibilaren koartela zegoen tokian, edozein motatako ibilgailuen azterketa egingo da datorren martxoaren 4a arte. Ibilgailuen azterketa astelehenetik ostiralera bitartean egingo da goizeko 10etatik eguerdiko 1ak arte eta, arratsaldeko 3,30etatik 6,30etara. Azterketa dohainikoa izango da.

## ■ Udalerrri euskaldunak

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eta Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB) “Udalerrri Euskaldunen oraina eta geroa” izenpean, I. jardunaldiak antolatu dituzte. Jardunaldiak 24tik 27ra bitartera burutuko dira Donostian eta Lizartzan. Izena emateko 65 24 13/46 66 50 telefonoetara deitu hilaren 23a baino lehen.



**HISPANIA**  **ZURICH**

**C. Romera**

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 08



# Erraminta makinaren museoa prestatzen ari da IMHa


**Elgoibarko** Erraminta Makinaren Institutuak erreminta makinari buruzko museoa egiteko asmoa dauka. Museoak erraminta makinaren sektorearekin lotutako ondarea berreskuratu nahi du. Sektorearen bilakaera erakutsi, gaiari gurutuko ikerketa bultzatu eta sektore honen ondarea ezagutaraztea du helburutzat. Museoarekin batera, dokumentazio zentru bat prestatuko da, gaiari buruzko bibliografia eta, teknika eta zientziaren beste edozein arlori buruzko informazio gordetzeko.

Museoa katalogazio

eta makinaren aukeraketa fasean dago oraindik eta berau prestatzeko batzorde tekniko bat eratu da. Jose Zabala, Patxi Aldabaldetrekua eta Jose Julio Carreras-ek osatzen dute batzordea.

Museoaz gain, dokumentazio eta ikerketa sailak egongo dira ikusgai. Hauen artean, erakusketa gela, hitzaldi eta ikusentzunezkoen gela eta dokumentazio arloa ikusi ahal izango ditu bisitariak.

Erraminta Makinaren museoa, Euskadiko Teknika Museoarekin harremanetan egongo da eta behin zabaldua, edonork bisita ahal izango du.



BEHERAPENAK - BEHERAPENAK - BEHERAPE  
 NAK - BEHERAPENAK - BEHERAPENAK - BEH  
 ER /  
 BE  
 NA  
 HERA  
 AK - BEHERAPENAK - BEHERAPENAK - BEHE  
 RA  
 - BEHERAPENAK - BEHERAPENAK - BEHERAPENAK



**PITXITXU**

**Berrikuntzak egingo ditugunez**  
**15 egunetan egundoko BEHERAPENAK**

Valentin Peñalba:

# "Euskal Herria berrantolatu egin behar da"

Valentin Peñalba elgoibartarra da, nahiz eta orain ez bizi hemen. Pasa den urtean jubilatzen zen eta buru belarri sartu SENIOR proiektuan. Izenak dioen bezala, nagusiek osatzen dute, mundu mailan orain

dela bost urte sortutako SENIOR proiektua. Valentinek, bere esperientzia aprobetxatuz, helburu honekin egon zen otsailean Lanbide Heziketarako Institutuan, zenbait ikasleren aurrean.

**- Zure bizitzan zehar, zertan egin duzu lan?**

- Erraminta makinaren munduan sartu nintzen 22 urterekin, makinak diseinatzen. 10 urte ere egin ditut kooperatibetan, baina gehiena erresponsabilitate postuetan, bai produkzio, bai antolaketa buru gisa aipatutako sektore industrialean.

**- Zer egiten duzue SENIOR-en?**

- Orain dela bost urte sortu zen Estatuan eta Donostian eta, dakienez, jubilatuek osatzen dugu. Ez gaude diruagatik hemen eta gure asmoa gure ezagupenak zabaltzea da eskatzen diguten guztiei. Denetarik gaude; abokatuak, ekonomistak, arkitektoak... Nolabait, aholkatzea da gure lana.

**- Zer medizina behar du gaur egun erraminta makinaren sektoreak dagoen egoeratik irteke?**

- Iraultzarena eta ez konfunditu eboluzioarekin. Elgoibarren egiteko modu bat dago eta egiturak, bigarren iraultza industrialekoak dira, kate-produkzioarenak,



**"Asmakuntzarik onenak garbigailua eta kotxea izan dira".**

alegia. Beraz, eboluzionatu ez, irauli bai. Zentzu honetan Europa osoa berrantolatu behar da eta gure lana Euskal Herriaz kezkatzea da. Heziketa eta egiturarik gabe ez dago ezer.

**- Aipatutako heziketaz, nola gabilta?**

- Oso atzeraturik. Irakaskuntza oso itxia da, aintzinako gremioak bezala. Tituluak mantentzearenak ere ez dauka zentzurik. Norberak ematen duenaren araberak, balio du eta ez sta-

tus bat daukalako. Heziketa profesionala behetik gora egin beharko litzateke, peritotik ingeniariara.

**- Batzuentzat, soldatan dago arazoa, besteentzat, enpresarien gestioan. Zer deritzozu honetaz eta krisiaren zergatiaz?**

- Krisiak ziklikoak dira eta oraingoa, nazioartekoa. Seguraski, enpresa asko itxi egingo dira baina beste batzuk sortuko dira. Ezin da "Taiwanizatu" herria.

Soldatek, konpetitiboak ez izaten laguntzen digute baina soldata beti dago produzitzen denarekin harremanetan. Guk, kultura industrialak daukagu, beraz, gehiago produzitzeko gai izan beharko ginateke. Agian, guk adina produzitzen duten beste horrenbeste daude. Ondorioz, onura hori soldata handiagoak izateko erabili beharko genuke. Soldatarena ez da hain zehatza, zeren bestela, hor dago Japonen kasua. Nahiz eta gainean agertu, demaseko krisia dauka orain.

**- Zer eskatuko zenieke politikoei?**

- Politikoei baino gehiago, jendeari: zein politiko aukeratzen dute? Edo elkartean dauzkagun hoberenak aukeratzen ditugu edo oraingoak ditugu. Bi galdera botako nituzke: zergatik uzten dute kanpoko produktuak etortzen? Eta zergatik jendeak "pasatzen" du politikaz? Jendeak eta herriak parte gehiago hartu beharko luke, eztabaidatu eta dauden hoberenak jarri.

MYRIAM ALDAZABAL



**H**auak izan ziren taldekako lehenengo saria irabazi zutenak. Lorategi ezin politagoa preparatu zigun kudrila bikain honek. Loretxoak, zuhaitzak, garastontzia eta lorezaina. Zorionak eta lasai, inor ez da horrelako lore politik zapaltzen ausartuko eta!



**"K**aixo!! Super Coke naiz. Estatu Batuetatik Euskal Herriko egarriak asetzera etorri naiz". Coca-Colak edan izan bazenitu ez zeneukan farolari kolpe egin beharrik.

**E**z da harrizkoa gero eta haur gutxiago ekartzea. Ekartzen hasi eta horrelako izterrekin jaiotzekotan hobe Karakate aldera buelta bat ematera joatea. Eta beste gauza bat! Orain artean erlojuak Jaunartzean erregalaten zirelakoan geunden, baina...





AZKUE

**H**emendik aurrera ez daukagu Usabiaga edota Pello Zabalaren zain egon beharrik eguraldiaren berri izateko. Argazkian dauzkagunak ziur hutsik egin gabe asmatuko dutela.

**"N**ik eren ahi dot, nik ere nahi dot,.. gelditu ziren erretratutik kanpo. E intentzio jartzen baduzu ikasteko orduan, pozi




**I**rrifartsu azaltzen zaizkigu bi futbol zale hauek. Athletic-ekoa ez zen hain pozik egongo Garcia de Lozak San Mamesen egindako lanarekin. Errealekoari, berriz, galderatxo bat: noizkoa da kamiseta hori? "Erretratu zaharrak" sailean sartzeko ere ez da batere txarra.



**F**rantziako Luis XIV. aren gortean argazkiko emakume hauek merezitako lekua izango zuketela uste dugu. Zortzi "dama" hauen arteko katuak ere ez zuen aukera galtzerik nahi izan. Ezker aldeko "damatxoak" soineko dotorea jantzi bai, baina, detailtxo bat ahaztu du: emakume batean ez da batere polita bizarra horren luzea lagatzea!

...“ Azaltzen direnak adina irretratuan azaltzeko beste irrik lagako dituzue gurasoak.



**G**ogoan al dituzue iazko Zipi-Zape anaiak? Aurten gaiztakeriak alde batera laga eta Sevilla aldera joan zaizkigu otsailean, "Apirileko feriarra". Pero ke reketezalaoz ke eztaiii! Xiko, un konzejo de BARREN: a la zeñorita por la zintura!!



**O**oole, ooole,... Donostian zezen-plaza egin ala ez egin eztabaidatzen ari diren bitartean, hara non azaltzen zaigun torero gazte hau Elgoibarko Plaza Handian.



**H**ara lau amama mantal-gorri, zein baino zein haundiagoak. Antena eta guzti badaude ere, beraiek aitortu digutenez 240 pezetako gastua egin zuten mozorroa prestatzeko. Hori da mozorroa krisi gariari egokitzea! Eskumakoa diseinatzailea izan zela jakin dugu.

**H**onako hau bakarkakoen txapelduna dugu. Ihauterietan burua lepo gainean eramatea alfer-alferrik izaten dela ohartuz, lepoa moztu eta batere lotsarik gabe ibili ziren kaleetan zehar. Zorionak!



**P**iratak ere ezin ziren falta karnabaletako desfilean. Irla bakartiaren inguruan haserre zeuden piratok, saririk jaso ez zutelako. Piratek beti izan dute fama txarra, zer egingo diogu ba...



**B**eni eta Maririk Donostiako ihauteri elitista alde batera laga eta Elgoibarkoan murgiltzea nahiago izan zuten.

Beni benetan guapa azaldu zitzaigun mini-gona altxaltxa eginda. Maririk, berriz, ez zuen jendeak ezagutzerik nahi eta antiejuak jantzita etorri zen.

**I**ñurrategi anaiak lasai egon daitezke. Erretratua atera eta gustura abiatu ziren Everest-erantz. Norbaitek esango du espedizio jendetsuegia dela baina, asko dauden tokian errezagoa da norbaitek gailurra lortzea. Bueltan kontatuko digute gailurra lortzerik izan duten ala ez. Animo!



**A**zkeneko laga dugu Txano-Gorritxu kuadrila hau. Oraingoak ez dira lehengoak bezain finak; amonarentzako saskitxoarekin irten beharrean, eskuak libre nahi dituzte garagardo botilak hartu eta tabernako berotasunak uxatzeko.

**Karmen Mujika**  
"Deba Garaia"koa



- **Esaiguzu zein den zuen lana:**
  - ▶ Pisu bat erosi behar duen jendea aholkatzea. Bilatzen ari den hori eskaintzea.
- **Langabezian gelditzeko beldurrik?** ▶ Momentu honetan beldur hori denok daukagu.
- **Zer da zuretzat etxe bat?**
  - ▶ Bizitzan gehien kostatzen den ondasuna eta, aldi berean garrantzitsuena.
- **Zein da Elgoibarko etxerik politena?** ▶ Baltasarko duplexa.
- **Zeri begiratzen diogu elgoibartarrok: etxeari ala prezioari?**
  - ▶ Haseran etxeari baina diruak izugarri baldintzatzen gaitu. Azkenean ahaztu egiten zaigu nolako etxea nahi dugun.
- **Mendian ala kalezuloan?** ▶ Kalean.
- **Txaleta ala baserria?** ▶ Txaleta.
- **Egurra, harria ala adreilua?** ▶ Harria.
- **Beheko sua ala kalefazio zentrala?** ▶ Kalefazio zentrala.
- **Alokatu ala erosi?** ▶ Erosi.
- **Zer esaten dizute hitz hauek?**
  - **King-Kong:** Edifizioa estetikoki ez zait polita iruditzen baina etxebizitzak kalitatezkoak dira.
  - **Leku-Eder:** Ondo gelditu da.
  - **Okupak:** Batzuetan ez zaie arrazoirik falta.
  - **Banketxeak:** Erosleentzat dira.
- **Zure portal ondoan hotzak hiltzen ari den norbait eramango al zenuke etxera?** ▶ Ez dut nere burua "hermanita de la caridad" paperean ondo ikusten.
- **Zenbat pisu daude hutsik Elgoibarren?** ▶ Iaz 500 bat zeuden gutxigorabehera.
- **Zergatik orduan hainbeste etxe berri?** ▶ Horixe da nik neure buruari egiten diodan galdera. Nork eskatuta egiten dira etxe hauek?
- **Egia al da gaurko gazteek ez dutela arriskatu nahi?** ▶ Hori ez da egia. Laneko inseguritatea da arazoa. Kontraturen bat egiten dieten momentuan hemen dira pisu eskean. Gure bezero onenak dira.
- **Bukatzeke, aholkuren bat etxea erostear dagoenari?** ▶ Bai, Elgoibarren etxe mordo bat dagoela libre eta ondo pentsatzeko zer nahi duten. A! Eta batez ere informazioa, informazioa lortu behar da.

IMANOL LARRAÑAGA

**Antonio Arrillaga**  
Medikua (1886 - 1961)



- Arnoate baserrian jaio zen 1886ko urtarrilaren 17an.
- Elgoibarko mediku ezaguna izan zen. Ospitalea San Inazion zeukan.
- Gizon jakintsua, traumatologia atalean ospea izan zuen. Elgoibar eta orokorrean Euskal Herriaren historiatzaile eta ikertzaile izan zen.
- Gizon ona eta lagun hobea zela esaten dute ezagutu zutenek.
- Kirolezalea oso. Mendizalea zen eta pilotan ere jokatzeko zuen.
- Izpiritu kristauduna, itxaropena eta karitatea ziren bere jomugak. Benetan gizon apala, edonori laguntzeko prest zegoen une oro.
- Arrunta bilakatu zen: "Ene, ez dakit nola ordainduko dizudan", eta medikuak begikotasun handiz: "Zu sendatuta ikustearekin, nahikoa ondo pagatuko didazu".
- Herriko alkate izan zen 1918-20 eta 1924-30 epeetan. Osasunaren Orden Zibilaren Gurutzea eman zioten.
- 1961ko abuztuaren 25ean hil zen.

**INTERIORES** BARRUEN DEKORAZIORAKO ESTUDIOA

- Proiektuak eta erreformak
- Lokal komertzialak eta etxebizitzak
- Obren zuzendaritza eta gramioen koordinakuntza
- Neurria egindako altzariak

Errosario 15. ELGOIBAR ☎ 74 40 19 / 55

**TXURI BELTZ**

Taberna

San Franzisko 38

## MOTZAK

### Carmen Perea, Euskadiko pistako txapelduna

Carmen Perea, Ego-Tokiko korrikalari gazteak, garaipena eskuratu zuen joan den astebukaeran Anoetan izandako Euskadiko 800 metrotako txapelketan. Carmen Gipuzkoako txapeldun ere bada 800 metrotako luzeran. Sigmako korrikalari gazteak erraztasun handiz irabazi zuen lasterketa eta beraz, oso zaila da jakitea zein den bere egoera fisikoa. Carmen Espainiako junior txapelketan arituko da astebukera honetan Anoetako kiroldegian.

### Urrezko eta brontzeko domina Gipuzkoako judo txapelketan

Angel Mari Albizuk, Eibarko Kalamua gimnasiko ikasleak, igandean Errenderin jokaturako Gipuzkoako judo txapelketan urrezko domina eskuratu zuen. Angelek 95 kilo arteko mailan, borrokaldi guztiak irabazi zituen. Txapelketa berean Gorka Garatek, Ibai gimnasioko ikasleak, hirutik bi borrokaldi irabazi zituen eta azkenean brontzeko domina eskuratu zuen. Albizu, Gipuzkoako txapelduna izanik martxoan jokaturako den Euskadiko txapelketan arituko da eta Gorka Garate ere beharbada bertan izan daiteke. David Mekolalde, berriz, Taekwondoko Euskadiko junior txapelketan arituko da datorren hilaren 27an. Postu ona eginez gero, Espainiako txapelketarako sailkatzea lortuko luke.



Josu Artetxe:


### "Elgoibarren duathloia galtzen ari da"

■ Zein da neguko eta udako triathloien artean dagoen ezberdintasuna? Negukoa triathloi zuria deitzen da: bizikleta, saltaka eta fondoko eskia. Jakan, Ansó eta Sierra Nevada praktikatzen da, besteak beste. Udan, eskiaren ordeztu, igeriketa egiten da.

■ Noiztik kirol kontu hauetan? Bizikletarekin orain dela hamar urte hasi nintzen, baina bertara bete-betean dedikatzea kriston paloa zenez, triathloiarri ekin nion, duela sei-zazpi bat urte, bizikletaz gain beste kirol batzuk ere praktikatu.

■ Duathloian ere bazabiltza. Beno, garai batean "Iron Man" deritzana praktikatzen nuen: 5km igeri egiten, 180 km bizikletaz eta 82 km saltaka. Oso gogorra da, asko matxakatu behar da eta nik lesio bat izan nuen, belaunean. Orain duathloian aritzen naiz, saltaka eta bizikletan.

■ Lasterketa batean parte hartzen duzunean zein da zure helburua? Ni afizionatu mailan ibiltzen naiz. Beharbada beti daukazu helburu edo itxaropen txiki bat irabazteko, baina oso zaila da, jende oso prestatua aurkezten da eta.



Norberak daukan marka mantentzea da garrantzitsua, ahal bada.

■ Zaila al da profesionala izatea kirol honetan? Niretzat bai. Kirol profesional izateko jaio beharra dagoela esaten dute. Nik uste dut egia dela; nahiz eta asko entrenatu, berez ere zerbait izan behar duzu. Duathloian badaude profesionalak, eta bertatik bizi daiteke, nahiz eta txirrindularitzak edo futbolak beste-ko oihartzunik ez izan, eta horiek beste dirurik eman ez.

■ Aholku bat duathloian hasi nahi dutenei? Nire ustez umeen artean gehiago hedatu beharko litza-teke kirol mota hau, galtzen ari baita. Elgoibarren jendea ez dago prestatua duathloirako. Saltaka ibiltzen diren pertsonak daude, baina bizikletan ziklo-turismoa egitera mugatzen dira, ez dute sufritzen eta zerbait egiteko, nahiz eta afizionatu izan, sufritu beharra dago, disfrutatzeaz gain. Txirrindulari batek, afizionatua nahiz profesionala izan, bizikletan sufritu egin behar du.

• Adina: 27.

• Kirolak: txirrindularitza, saltaka, igeriketa, eskia, pesak eta karatea praktikatzen ditu.

• Elikadura: Orain dela hamaika urte barazkijalea da.

**BOUTIQUE DEL PAN**  
Enpanada Baserriko ogia  
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

JOSE ANGEL ZABALA  
**URDAITEGIA**

Berezitasunak:

Bakilaua

Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34

**ITZALA**

*Edergintza*

San Frantzisko, 49 - 1 esk.  
Tel. 74 43 03 - ELGOIBAR

**Kide**

**ILEAPAINDEGIA**

☎ 74 00 69  
San Frantzisko, 19 1 esk.



# Xake elkarteak egoitza berria dauka

Elgoibarko xake jokalarien elkarteak, Zubi-Ondok, egoitza berria estreinatu du. Lokalean C.D. Elgoibar futbol taldearen ofizinak zeuden lehenago. Oraindik azken ikutuak falta diren arren, egoitza zabalik dago eta liga probintzialeko partiduak ere bertan jokatzen dira.

**Z**ubi-Ondo xake elkarteak Santa Klarako eskolaurreko lokalak erabili ditu orain arte. Lokalak jabetzan zituzten arren, Udalarik beste lokal bat eskatu zioten Santa Klarakoak zenbait desbentail zituelako. Zubi-Ondo elkartekoen ustez, Santa Klarako lokala urrutegi zegoen eta desegokia zen xakerako. Beraien ustez, lokalaren arazoak xakea lagatzera bultzatu ditu hainbat jokalaria. Horren adibide da bost urtetan jokalarien erdiak elkarte laga dutela. 1989. urtean esaterako, bost talde zuden ligan jokatzen. Haue-tatik talde bat, preferente

izeneko kategorian, probintziako goreneko mailan, zegoen. Bik bigarren mailan jokatzen zuten eta beste bik hirugarrenean.

Talde bakoitza gutxienez sei kidez osatuta egon behar da, gero, lauk baino ez jokatu arren. Guztira, beraz, 30 lagun inguru zeuden jokatzen urte hartan. Aurten, berriz, hiru talde bakarrik daude, hamabost bat lagun guztira, eta hauetako bat gazteen taldea da. Zaila izan arren, egoitza berriarekin galdutako jokalaria berreskuratzeko esperantzaz daude Zubi-Ondoko arduradunak.

Materiale aldetik xakean jokatzekeo beha-



■ ■ Jokalari gehiago apuntatuko den esperantza dute.

rezkoa den guztia dago egoitzan eta bibliografia ugari ere bai.

Zubi-Ondo xake elkarteko lokal berria ostegun arratsaldetan 6etatik aurrera egongo da zabalik. Xake elkartean jokatu edo izena eman nahi duen edonor ordutegi horretan pasa daiteke lokaletik edo 74 03 92 telefonora dei dezake.

## Liga probintziala

Herriko xake jokala-

riak bete bete sartuta daude liga probintzialean. Astebukaera honetan seigarren erronda jokatuko dute eta liga, hilaren 26an bukatuko da. Ondoren igoerako edo jeitsierako "play-off" a jokatuko da. Bigarren mailako Elgoibar A taldeak igoerakoa jokatuko du seguruenik eta Elgoibar B taldeak, jeitsierakoa. Hirugarren mailako taldeak, berriz, amaitu du dagoeneko denboraldi erregularra deitzen dena.

## AGENDA

### FUTBOLA Mintxetan

#### Larunbata 19

10,30: Elgoibar - Real Sociedad (Infantilak)

12,00: Elgoibar - Hamaika bat (Kadeteak)

16,30: Haundi - Anaitasuna

#### Igandea 20

10,00: Urki - Zarautz (Jubenilak)

12,00: S.D. Eibar - Ilintxa (Jubenilak)

### FUTBITOA Urasandin Larunbata 19

10,00: G.Garcia - Bar Roke Ametsa - Lagun Toki

11,00: Arroak - Xirula Mimox - Pedrusko

12,00: King-Kong - Univ. de Chile Sporting - Aldavas

### XAKEA Pista beltzeko lokalean (Lehen C.D.)

#### Larunbata 19

16,00: Elgoibar A - Chaturanga

## EMAITZAK

### XAKEA

Bergara 0,5 - Elgoibar A 3,5

San Andres C 3,5 - Elgoibar B 0,5

### ESKUBALOIA

Urnieta 19 - Elgoibar 12 (Neskak)

Jauja 10 - Elgoibar 32 (Jubenilak)

Bizkor 17 - Elgoibar 17 (Kadeteak)

### ARETO FUTBOLA

Elgoibar 5 - Bar El Nido 2 (1. maila)

Elgoibar 8 - Hoga extremeño 0 (2. maila)

### FUTBOLA

Urola 2 - Haundi 1

Zumaiako 5 - Elgoibar 1 (Jubenilak)

Bergara 4 - Elgoibar 2 (Kadeteak)

Elgoibar 4 - Intxaurdi 1 (Neskak)

# 1993ko KIRO



## JUDO

**Angel Mari Albizu, 24 urte**


- Euskadiko selekzioko partaide.
- Burdeos-eko txapelketan 3.a.
- Euskadiko Sambo Txapelketa.
- Gipuzkoako Txapelketa.
- Euskadiko Txapelketa.
- Eibarko Nazioarteko XXII Torneoan 2.a.
- Lisboako Nazioarteko Torneoan txapelketa.
- Anglet (Frantzia)ko Torneoan 3.a.
- Sestuko IV Txapelketan 2.a.



## PILOTA

**Juan Inazio Ansola, 25 urte**


- Sigmako Torneoko txapelketa.
- Deba arrokoko txapelketan semifinalista.
- Irun eta Usurbileko Txapelketan partehartzaile.
- Añorgako Torneoan final laurdenetara iritsi zen.



## TXIRRINDULARITZA

**Alexander Galarraga, 16 urte**

- Kadete mailako Euskadiko txapelketa.
- Espainiako txapelketan 14.a.
- Zegamako txirrindulari proban 2.a.
- Segurako Txirrindulari proban 3.a.



## TRIATHLOIA

**Iñaki Konde, 42 urte**

- Euskadiko triatloia C mailan burutu zuen. (3.800 igeri, 130 bizikletaz eta 30 korrika)
- Duatloian Euskadiko zirkuitoa hirugarrena bukatu zuen. (A mailan : 40-50 urte bitartean).



## ESKUBALOA

**Alazne Rementeria, 27 urte**

- 10. urtea Arrate Amaña ekipokoa jokatzen.
- 1. dibisioan jokatu eta iguera fasea jokatu zuten Molins del Rey (Kalaluña) eta Eibarren.



## ATLETISMOA

**Karmen Perea, 18 urte**

- Pista estalia: Brontzezko domina Espainiako Junior txapelketan.
- Krosa: 8.a Euskadiko txapelketan.
- Aire libreko pista: 800 metrotako Gipuzkoako txapelketa absolutua.
- Markak: 800 m. 2.15.41  
1.500 m. 4.48.73



## EHIZA

**Patxi Arriola, 29 urte**

- Gipuzkoako Oilagorren txapelketan txapelketa.
- Espainiako oilagorren txapelketan laugarrena.



## FUTBOLA

**Joseba Etxeberria, 16 urte**

- Euskadiko selekzioa (SUB-17):  
Madrid 3 - Euskadi 3 (2 gol)  
Euskadi 5 - La Rioja - 1 (2 gol)
- Espainiako selekzioa (SUB 16):  
Suecia 1 - España 2 (gol 1)  
España 5 - Israel 1 (gol 1)
- Errealeko jubeniletan jokalaria.(16 gol).

# OLARI ONENA



## MENDIA

**Pablo Barrenetxea**, 25 urte

**Aitor Esnaola**, 24 urte.

- Nanga Parbat espedizioan parte hartu zuten 8.000 metrotik gorako mendia egin zuten lehen elgoibartarrak izan zirelarik.



## ARETO FUTBOLA

**Cesar Arriola**, 29 urte

- 92-93 Futbol Areto txapelketan jokalaria onena aukeratu zuten beste ekipoetako entrenatzaileek partiduz partidu ematen dituzten puntuaketaren arabera.



## IGERIKETA

**Judith Ajubita**, 13 urte

- Lehen postua Eibarren, 400m. krolean
- Lehen postua Azpeitin, 100m. krol eta estiloetan.
- Lehen postua Oñatin 200 m. krolean.
- Lehen postua Legazpin 100 m. krolean. 1993. urtean marka pertsonal guztiak hautsi ditu.



## HERRI KIROLAK

**Harrijasotzailea**

**Javier Arriola**, 20 urte

- 21 urtetik beherakoetan Euskadiko eta Gipuzkoako txapelduna.
- Adin librean: Bigarren mailako txapelduna eta Euskadiko bigarrena.
- Elgoibarren 105 jasoaldiko marka 3 jasoaldigatik hobetzea lortu zuen.



## KARATEA

**Josu Duran**, 10 urte

- Lehen postua Azkoitin jokaturako probintzia arteko txapelketan.
- Lehen postua bi aldiz Markinan jokaturako probintzia arteko txapelketan.
- Parte hartu duen txapelketa guztietan lehen postuan geratu da.



**BARRE**Nek Udal Kirol Zerbitzuaren laguntzaz 1993ko Elgoibarko kirolari onena aukeratzeko proposatu du. Kirolari onena zein izan den aukeratzeko izen hauek proposatu dizkigute Elgoibarko Kirol elkarteek.

Irakurleok aukeratu duzue onena eta bidali erantzuna **BARRE**Nera.

Erantzuten duzuenon artean **SARI EDER BAT** zozketatuko dugu.

**ZEIN DA 93ko KIROLARI ONENA?** .....

**IZEN ABIZENAK** .....

**HELBIDEA** .....Tel.....



## JMV: Kristautasuna bizi gaztea izanik

"Juventudes Marianas Vicencianas" deritzon mugimendua herrialde ezberdin askotara dago zabaldua. Hala izanda, Elgoibarren izen honen pean talde bat dago eta 1985. urteaz geroztik dago martxan. Gipuzkoan era honetako 10 talde daude.

**J**MV taldeak gaztez osatutako talde kristauak dira. Karitateko Catalina Labou-réri Maria amabirjiña ager-tu zitzaion eta 1847. urtean Pio IX Aita Santuak onartu zuen mugimentu hau.

Talde hauen helburua gazteei laguntzea da, beraien fedea sendotzen laguntzea, alegia. Fede anonimoa fede pertsonala eta arduraz beterikoa bihurtzea, eta taldean bizitako fedea ezagutzea da helburua. Gizakiaren alde lan egin, behartsuei lagundu, eta ebanjelioa eta kristau ikasbidea lantzen dute talde hauek.

Talde hauek, Karitateko Alaben etxeen inguruan egituratuta daude eta beraz, ez da zaila izaten erreferentzi talde heldu bat topatzea. JMV mugimendua lau zutabetan oinarritzen da: Eliza, elizako kide direlako haren alde lan egiten dute. Misioak, elizako kide diren heinean misiolariak ere badirelako. Marianoa, Maria lehen kristaua izanik, bera dutelako eredutzat. Eta azkenik, bizenzianoa, Vicente de Paulek ebanjelioa bizi izan zuen



■ ■ Hauek dira Elgoibarko JMV osatzen dutenak. Argazkian hiru falta dira.

erara bizitzea delako.

Taldeak arduradun bat dauka, katekista edota Karitateko Alaben lagundiko kide bat. Elgoibarko taldearen arduraduna Begoña Mugerza da. Taldea 9 gaztek osatzen dute gaurregun, bi taldetan banatuta. Bilerak hamabostean behin egiten dira, askok kanpoan ikasten baitute. 20 urtetik gorako taldea sapatu goizetan biltzen da eta igande goizetan 18 urtetik beherakoek egiten dute bilera. Normalean ordu t'erdiko bilerak egiten dituzte, gaiaren arabera beti ere. Parrokiako kide direnez, sendotza ikasbidea, liturgia, aisialdiko begirale lanak eta antzerako betebeharrak egiten dituzte taldeko gazteek.

Probintzia eta Estatu mailan, topaketak, kanpamentuak etab. antolatzen dituzte. Urtero, Benagalbonen (Malaga) uztailean, Estatu

guztiko taldeak biltzen dira, leku hau toki berezi bihurtu delarik JMV mugimenduarentzat.

Horrelako talde gehienak eskolatan funtzionatzen dute eta gazteak beraz, txikitatik dira taldekide. Elgoibarren zailagoa da hori gertatzea, taldeak San Lazaro egoitzan duelako gunea. Horregatik, fedea sakondu eta sendotu nahi duen gazteak eta behartsuen alde lan egin nahi duenak jakin dezala zabalik dauzkala JMV taldeko ateak.

### FITXA TEKNIKOA

**Sorrera urtea:** 1985

**Kideak:** 9

**Arduraduna:**

Begoña Mugerza

**Iharduera:** Fedea sendotu

**Lokala:** San Lazaro egoitza




**OIERKI IGONGAILUAK**

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

(943) 11 35 15 • ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR



**DEKORAZIOA**

**PROIEKTUAK**

**ERREFORMAK**

**ALTZARIAK**

**OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

# Ihauterietatik Garizumara

Ihauterietako astear-teak bukaera eman ohi dio alaitasun eta umore giroko jai egun hauei. Garai batean, Euskal Herri osoan kopin handi bat erretzen zen inauterien heriotza adierazteko. Gaurregun, ohitura hau zeharo galdu da eta horren ordez, Elgoibarren egiten ez den arren, sardina bat erretzen da.

Elgoibarren ez da sardina erre eta berau enterratzeko ohitura erro-tu. Hala ere, ihauteriei agur esateko modu berezi bat omen dugu elgoibartarrok. Etxe askotan, jai egun handia izaten da astearte, eta bazkari eta afari berezia egiten da.

Inhauterietako gehie-

gikerien ostean, barauaren eta penitentziaren garaia dator. Garizuma deritzon aldia da eta hausterre egunarekin hasten da. Hausterre egunean, ohitura da mezatara joan eta aurreko urtean bedeinkatutako erramuen hautsak jasotzea. Apaizak hautsarekin gurutzearen seinalea egiten du kristauaren buruan, hautsetik sortua dena hauts bihurtuko dela gogoraraziz.

Garizuman sartuta gaude, eta 40 egunetan elizak baraua egiteko agintzen du. Dena den, gaur eguneko Garizuma ez da garai batekoa bezalakoa; otoi-tza, meditazioa eta sakrifizioa nagusi zirenean. Erdi aroan hain zen zorrotza Garizuma, ezen




■ ■ Ihauterien ostean Garizuma. Penitentziarako sasoi.

debekatuta zeukan elizak ezkontzak, bataioak eta jai kutsua zuen ekintzarik ospatzea. Eta zer esanik ez, joku, espektakulu eta horiei buruz. Elizak gogor zigortzen zituen gauza hauek.

Gaur egun, noski, ez dago horrelako debekurik. Garizuma, pazko igandea prestatzeko garaia da; kristaua den edonorentzat, urteko aldirik garrantzitsuenetarikoa.

## 94ko ezkongaiak



**BIKOTE SARTUARENZAT ERREGALIAK**  
**94KO EZKONGAIEN LEIHAKETA**

**ERREGALIAK**

ANDREGAIAREN JANTZIA  
SENARGAIAREN JANTZIA  
ZILARREZKO EZKON DIRU  
EZTAI EGUNERAKO CAVA  
EROSKETA TXARTELA  
SUKALDERAKO MAHIA ETA AULKIAK  
BAXERA ETA KRISTALERIA  
ETXEKO POLIZA ETA BIZI ASEGUROA  
CANARIASERA BIDAIA

**ETXEAK**

BAYON (Donostia)  
TAYLOR (Vitorla/Gasteiz)  
KAREAGA (Eibar)  
CODORNIU  
ARKAUZ HALTZARIAK (Aretxabaleta)  
IKER (Mondragón)  
TUIN'S (Donostia)  
OCASO ASEGURO ETA BERRASEGURUAK (Eibar eta Beasain)  
EROSKI BIDAIAK (Donostia)

**ZOKETA: OTSAILAREN 25an**

1995ko Martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu Otsailaren 25a baino lehen LOIOLAKO HERRI IRRATIA • 94KO EZKONGAIK • 20730 AZPEITIA (GIPUZKOA) helbidera.

SENARGAIA \_\_\_\_\_

(izen deiturak)

(helbidea)

(herria)

(telefonoa)

ANDREGAIA \_\_\_\_\_

(izen deiturak)

(helbidea)

(herria)

(telefonoa)

Ezkontza eguna (gutxi gora behera) \_\_\_\_\_



**RADIO POPULAR**  
**LOIOLA**  
**HERRI IRRATIA**

## 18 OSTIRALA

20,00 HITZALDIA

Gaia: **Medizina Naturala**

Hizlaria: Mari Sol Saez. Naturopata eta iridiologoa.

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

"El Mariachi"

Zuzendaria: Roberto Rodriguez

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri zine kluba

## 19 LARUNBATA

12,00 ZAZPIKIREN BILERA

Gaia: Programazioa

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

"El Mariachi"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

## 20 IGANDEA

19,30-22,15 ZINEA

"El Mariachi"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

## 21 ASTELEHENA

08,00-10,15-12,30 IRUDI BIZIAK

"Drugstore cowboy"

Heziketa ertaineko ikasleentzat.

✓ Udaletxeko biltzar aretoan

Antolatzailea: Drogomenpekotasunen Prebentziorako zerbitzua eta Ongarri.

19,00 HITZALDI EZTABAIDA

Gaia: **Maltzaga -Urbina**

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: "Deba bailara bizi bizirik" plataforma.

20,30 ANDRAIZEREN BILERA

✓ Kultur Etxean

## 23 ASTEAZKENA

18,30 HEZIKETA ERTAINEKO GURASOEI ZUZENDUTAKO SEXU IKASTAROA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Drogomenpekotasunen prebentziorako Zerbitzua eta Elgoibarko Institutua.

## 25 OSTIRALA

22,15 ELGOIBARKO IZARRAREN URTEKO BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

"La madre muerta"(J.M. Bajo Ulloa)

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri zine kluba

## ZINEA

"El mariachi"

Kitarra jotzen duen txikano baten miseriak kontatzen ditu pelikulak. Herri batera heltzen da eta hiltzaile odoltsuenarekin konfunditzen dute.

Pelikula hau zenbait zinema girotan gehiegi mirestu dute. Muntaia izugarri ona da eta oso bizkorra. Aurriritzi eta formalismoetatik ihes egiten duen estilo narratiboa erabiltzen du. Komikia eta zinefiliaren aldeko joera igartzen zaio. Historia, thriller-a eta hiriko western-aren arteko konbinazio bizia da.

## ZINEA



## ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea URTEKO BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA



GAIEN ORDENA:

0.- lazko aktaren onarpena.

1.- 1993. urteko balantzea.

2.- 1994. urteko asmoak eta aurrekontua.

3.- Zuzendaritza Batzorde berriaren hautaketa eta onarpena.

4.- Galdera - erantzunak.

EGUNA: Otsailaren 25ean, ostirala.

TOKIA: Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

ORDUA: Arratsaldeko 7etan.

Zuzendaritza Batzordea.

## Etxebizitzak

Pisu bat salgai dut San Frantzisko kalean 37- 4. pisua.  
**74 34 03**

Logela bat daukat alokatzeko. Erropak ere garbitzen ditut.  
**Tel.: 74 24 06**

Etxe bat daukat alokatzeko. Urasandin 3. pisuan  
**Tel.: 74 13 57**

Etxe bat erosiko nuke Deban. Deitu eguerdian 13,30-14,30. Gaez 19,30etatik aurrera.  
**Tel. 74 04 59**

Etxe bat salgai daukat Santa Klara 24an. **Tel: 74 40 52.** Ofizina orduetan deitu.

Baserri bat hartuko genuke  
**Tel.: 76 62 64. Imanol**

Pisu bat salgai. Ubitarte 11. zenbakian.  
**Tel. 74 12 07 (Iñaki - Mertxe)**

Etxebarrin etxebizitza berri bat dago salgai. 87 m<sup>2</sup> Sukaldea, 3 logela, egongela bat, 2 bainu gela, ganbara, terraza eta garajea.  
**Tel.: (943) 70 12 71**

## Lana

Hiru neska gara eta astebukaeretan umeak zaintzeko prest gaude.  
Deitu 74 05 36/74 08 46. Gaez.

## Salerosketak

Artzai txakurrak saltzen ditut. Bi hilabete dituzte.  
**Tel : 74 33 76 Ainhoa**

Trikitixa jotzeko soinu txiki bat daukat saltzeko.  
**Tel.: 74 11 29 ofizina orduetan**

Gitarra elektriko bat salgai. Fender Stratocaster imitazioa eta 50 watioko Peavey amplifikadorearekin.  
**Tel. 74 02 36 Deitu arratsalde ofizina orduetan**

Arropa sekadora - zentrifugadora bat saltzen dut. Estrenatu gabe. 40.000 pta balio zuena 18.000 ptan.  
**74 19 81 (Ana Mari)**

Garaje bat daukat alokatzeko telefonika parean.**Tel.: 74 29 31 Rosi**

San Antolin auzoan lokal bat alokatzeko daukat. Taberna ondoan. **Tel: 74 17 95**


Ekonomia bat saltzen dugu. Berria. Deitu lanordutan.  
**Tel.: 74 16 38 Ainhoa**

## Bestelakoak

Karitasek 125 W.eko frigorifiko bat dauka behar duenari emateko.  
**74 15 09 / 74 12 57**

Pasa den hilak 4ean, urrezko pultsera bat galdu nuen, Plazatik, Eroskira eta handik Elizara egin nuen ibilbidean. Arratsaldeko 6,30eta 7ak bitartean izan zen. **Norbaitek aurkitu badu, mesedez deitu 74 15 24 ra.**

Elizatik Urasandira bitartean betaurrekoak galdu nituen errege bezperan. Norbaitek aurkitu bazituen deitu mesedez: **74 20 59**



## EL ALMACEN DE ELGOIBAR

### Altzariak

**ESKEINTZA BEREZIAK**

*Erakusketa aldaketa dela eta era guztietako sofa eta tresiloetan*  
**BEHERAPENAK**

**Siloi zaharra ekartzen baduzu 5.000 pta jasoko dituzu !!**



*Erosi ala ez zatoz gu bisitatzera!*


**Urasandi, 2. Tel.: 74 29 41 ELGOIBAR**

# ERAKUTSI

Seat Cordoba da. Diseinu berria. Probokatzailea bere prestakuntzetan.  
Bikaina seguritatean. Ekipamenduan. Ezingo duzu aguantatu.  
Erakutsi.



## TEKNOLOGIA ALEMANA



**SEAT**  
*Bai!*

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 - Tel. 11 36 42 - EIBAR